| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/09/16<br>**Fecha**: 16/09/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Kultur - Etxea<br>**Lugar**: Casa de Cultura |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala / Ayuntamiento:***

- Gotzone Amuriza (Zinegotzia / Concejala)

***Gizartea/Sociedad:***

16 Herritar, 16 ciudadanos/as

***Kontsultaria/Consultora:***

Ainhoa Ugalde / Amaia Abanzabalegi / Juan Mª Lersundi(BITAKA)

| 1. Saludos y agradecimientos | 1. Aurkezpena eta esker onak |
|---|---|
| Gotzone Amuriza, concejala del Ayuntamiento de Igorre, da la bienvenida y agradece a todos y todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre.<br><br>Expone que actualmente se está elaborando el estudio relativo al Plan de Movilidad Sostenible en el municipio. Por ello, coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar dos foros de participación ciudadana donde toda la ciudadanía podrá tomar parte en el debate.<br><br>Tras la presentación , la Consultoría procede a detallar el orden del día:<br><br>• Saludos y agradecimientos.<br>• Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre.<br>• Ruegos y preguntas.<br>• Trabajo grupal.<br>• Resumen del trabajo grupal.<br>• Agradecimientos y próximos pasos. | Gotzone Amurizak, Igorreko Udaleko zinegotziak, ongietorria luzatzen diete bertaratuei eta eskerrak ematen dizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu du Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren planaren diagnosia aurkeztu den foro honetan.<br><br>Gaur egun Udalerrian Mugikortasun Iraunkorraren inguruko azterketa bat abian dela azaldu du. Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da denen artean gai horren inguruan eztabaida burutzeko. Hori da partaidetza foroak eratzeko arrazoia. Helburua Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren zirriborroa aurkeztu eta horren inguruko eritziak elkar trukatzea da.<br><br>Aholkularitzako kideek, jarraian, gai zerrenda azaldu dute:<br><br>• Aurkezpena eta eskerrak.<br>• Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren aurkezpena.<br>• Galde-eskeak.<br>• Taldekako lana.<br>• Taldekako lanaren laburpena.<br>• Agurra eta hurrengo pausuen azalpena. |

| **2. Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre** | **2. Igorreko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
|---|---|
| Amaia Abanzabalegi y Ainhoa Ugalde realizan la presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: el alcance y la razón de ser del estudio; las fases del plan; los objetivos que debe cumplir; el contenido y los datos más relevantes del diagnóstico.<br><br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que el documento del diagnóstico es un documento provisional que se espera que sea completado con las aportaciones propuestas por la ciudadanía en el presente foro. | Amaia Abanzabalegi eta Ainhoa Ugaldek aurkeztu dute Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosia, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: azterketaren eremua, zergatik egin den, planaren faseak, bete beharreko helburuak, eta azkenik, diagnosiaren edukia bera eta datu esanguratsuenak.<br><br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Diagnosiaren behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatutako izango da. |
| **3.- Ruego y preguntas** | **3.- Galdera- eskeak** |
| La consultora consulta a las personas asistentes si desean plantear alguna pregunta, reflexión o ruego a cerca de la presentación expuesta. Se exponen las preguntas y comentarios recogidos en este apartado:<br>- Uno de los participantes comenta que le ha parecido acertado el estudio expuesto y que le ha sorprendido el dato de los desplazamientos internos (4.640 desplazamientos / día, 16%). Al respecto reflexiona sobre los padres y madres que llevan a sus hijos/as a la escuela en coche.<br>- Otro participante comenta que el Plan le parece un estudio exhaustivo y detallado que se aproxima a la percepción que él tiene de la realidad de Igorre.<br>- En relación a esta última afirmación, otro de los asistentes comenta que él también está de acuerdo y que en su opinión es una cuestión de que utilizamos el transporte privado por costumbre y cultura. Por ello, convendría cambiar de mentalidad y que la administración ofreciese medios para que dejemos de lado el uso del vehículo privado.<br>- Uno de los asistentes comenta que esta de acuerdo con el resto de los participantes, pero que el dato de que el tramo | Aholkularitzako teknikariek aurkezpenaren inguruan ea galderarik, hausnarketarik edo iradokizunik dagoen galdetu dute. Luzatutako galdera eta iritziak atal honetan laburtzen dira:<br><br>- Partaideetako batek azterketa egokia dela eta barne joan – etorrien datuak (4.640 joan-etorri/eguneko, %16) asko harritu duela esaten du. Euren haurrak eskolara kotxean eramaten duten gurasoen inguruan hausnarketa bat egiten du.<br><br>- Beste partaide batek, Plana berak duen Igorreko errealitatearen pertzepzioari egokitzen zaion ikerketa zehatza eta oso ondo egina dagon azterketa bat dela esaten du.<br>- Beste partaide batek, azken baieztapen honekin ados dagola esaten du. Bere iritziz garraio pribatua ohituraz eta kulturalki erabiltzen dugu. Horrexegatik, garraio pribatuaren erabilpena alde batera usteko mentalitatea aldatzea eta administrazioak baliabideak eskaintzea komenigarria izango zen.<br><br>- Beste partaide batek gainontzeko beste partaideekin ados dagola esaten du, baina 21 kilometro puntua arrisku handiena duen tokia denaren baieztapena egokia ez dela azpimarratzen |

| | |
|---|---|
| de mayor peligrosidad sea el punto kilométrico 21 es incorrecto, se trata del PK 22, el cual se encuentra delante de la Farmacia y la Cristalería BIZKOR. Al respecto los/las técnicos responden que tal vez sea entre el PK 21 y PK 22, ya que en ocasiones los puntos de mayor riesgo se encuentran entre dos PK-s con sus correspondientes hectómetros. Sin embargo, se estudiará la petición.<br>- Por último, uno de los asistentes comenta que está de acuerdo con la afirmación de que el estudio se aproxima a la percepción de la realidad en Igorre y que él mismo suele “pecar” utilizando el coche más de lo debido. Se comenta que conviene reflexionar sobre la nueva realidad que provocará la próxima apertura de la variante, las acciones que se deberán tomar, así como qué convendría hacer con los vehículos que estacionan actualmente de manera ilegal. | du. Partaide honen iritziz, arrisku gehien duen tokia Farmazia eta BIZKOR Kristaldegiaren aurrean dagoen 22 PK-a da. Baieztapen honeri erantzunez, teknikari batek beharbada puntu arriskutsuena 21 eta 22 PK-en artean dagoela esaten du. Batzuetan arrisku gehien dituzten tokiak bi PK-en artean daude eta toki hauek hektometroak izaten dituzte. Hala ere, azken eskari / zalantza hau zehatz aztertuko dela esaten du.<br>- Azkenik, bertaratutako batek Plana berak duen Igorreko errealitatearen pertzepzioari egokitzen zaionaren baieztapenarekin ados dagola esaten du. Honen harira, berak kotxea gehiegi erabiliz maiz “bekatu” egiten duela esaten du. Gainera, laster irekiko den saihesbideak errealitate berri bat sortuko duenaren, ze ekintza martxan jarri beharko diren eta zer egin behar den gaur egun gaizki aparkatzen duten autoen inguruan hausnarketa sakon bat egin behar dela esaten du. |
| **4. Trabajo grupal** | **4. Taldekako lana** |
| En principio, los/las consultores/as comentan que teniendo en cuenta el número de personas asistentes sería idóneo crear dos grupos para debatir los diferentes aspectos de la presentación. Sin embargo, uno de los asistentes propone realizar el trabajo grupal mediante la creación de un solo grupo y todos/as los/las asistentes se muestran conforme con ello. Por ello, se acuerda realizar el trabajo grupal de este último modo.<br><br>El trabajo grupal se desarrolla mediante el planteamiento de diferentes preguntas, donde se da oportunidad a todos/as los/las asistentes de mostrar su opinión. Mediante dicho trabajo grupal se obtienen importantes aportaciones que se resumen y agrupan en relación a la pregunta planteada. Todas estas reflexiones serán de utilidad a la hora de completar el borrador de la diagnosis:<br><br>**<u>1.- Peatones y bicicletas: ¿Se ve posible el uso de una red peatonal o de bicicletas para otros usos que no sean de ocio (ir a trabajar, hacer compras...)?</u>**<br>- Uno de los asistentes comenta que sí es posible, aunque es una cuestión que depende de la mentalidad de cada uno/a. Además la construcción de la variante también ayudará a su utilización. Se ve posible el uso compartido del coche, también se ve posible la implantación del Oinez | Printzipioz, teknikariek taldekako lanari ekiteko eta aurkezpeneko gaiei buruzko eztabaida egiteko, bertaratutako herritar kopurua kontuan izanik, bi talde osatzea proposatzen dute. Hala ere, bertaratutako batek talde bakar bat egitea nahikoa dela esaten du. Gainontzeko bertaratutako guztiek, azken proposamenarekin euren adostasuna adierazten dute eta taldekako lana modu honetan egitea erabakitzen da.<br><br>Taldekako lana, bertaratutako guztiei euren iritziak emateko aukera emanez, galdera desberdinak planteatuz burutzen da. Eztabaida honetan hitz egindako ekarpenak interesgarriak eta baliagarriak izan dira eta diagnosiaren zirriborroa osatzeko erabiliak izango dira. Ondoren, laburbilduta eta gaika sailkatuta daude eztabaida horretako gai nagusiak:<br><br>**<u>1.- Oinezkoak eta bizikletak: Nola ikusten da oinezkoentzako eta bizikletentzako bide – sare bat izatea lanera joateko, erosketak egiteko...?</u>**<br><br>- Bertaratutako batek posible dela uste du, baina bakoitzaren mentalitatearen araberako gai bat dela uste du. Gainera, saihesbidearen eraikuntzak sare hauen erabilpena ahalbideratuko du. Kotxea konpartitzea eta Oinez Busa aurrera eramatea posibletzat ikusten da. Gaur egun, guraso askok euren |

| | |
|---|---|
| Busa. Hasta el momento, muchos/as padres y madres llevan a sus hijos/as a la escuela en vehículo privado. La implantación de redes ciclables ayudará que vayan en bicicleta a la escuela o incluso al instituto. | seme-alabak eskolara ibilgailu pribatuan eramaten dituzte. Bizikleta sareak ezartzea eskolara bizikletaz joatea ahalbideratuko du. |
| - Aunque alrededor de la carretera general se ubiquen muchas empresas del municipio, actualmente da miedo ir en bicicleta o a pie a las mismas, ya que no existen infraesytructuras idóneas para ello. Sería preciso conectar las empresas mediante aceras peatonales y/o redes ciclables. Hoy en día, la bicicleta se utiliza para hacer deporte, pero no para ir a trabajar. | - Nahiz eta herriko enpresa asko errepide generalaren inguruan kokatu, azpiegitura egokirik ez dagolez, gaur egun enpresa hauetara bizikletaz edota oinez joatea beldurra ematen du. Enpresa hauek, oinezkoentzat espaloiekin edo bizikleta-sareekin lotzea beharrezkotzat ikusten da. Gaur egun, bizikleta kirola egiteko erabiltzen da, baina lanera joateko ez. |
| - A la empresa Ormazabal no se puede acceder andando. Sería preciso adecentar las aceras. | - Ormazabal enpresara ezin daitezke oinez joan. Espaloiak konpondu behar dira. |
| - A San Cristóbal se puede ir a pie, pero todo el mundo va en vehículo privado, ya que se necesita un cambio de mentalidad. | - Nahiz eta San Cristobalera oinez joan daiteken, mundu guztia kotxez doa. Beraz, mentalitate aldaketa bat behar da. |
| - Es necesario un compromiso en el ámbito local: hacer campañas, implantar medios/infraestructuras más sostenibles, aparcamientos disuasorios... | - Udal mailako konpromezua beharrezkoa da: kanpainak egiteko, iraunkorragoak diren azpiegiturak/baliabideak ezartzeko, aparkaleku disuasorioak... |
| - Sería necesaria un cambio de mentalidad y sería una oportunidad empezar dicho cambio a través de los/las niños/as y jóvenes del pueblo. | - Mentalitate aldaketa bat beharrezkoa da eta aldaketa hori, haurrengandik edo gazteengandik hastea aukera bat bezala ikusten da. |
| - Convendría analizar el desplazamiento en los barrios. | - Auzoen joan – etorriak aztertzea komenigarria izango litzateke. |
| - Si hubiera bidegorris (infraestructuras), se utilizaría la bicicleta como medio de desplazamiento habitual. | - Bidegorriak (azpiegiturak) izango balira, bizikleta ohiko garraio lez erabiliko litzateke. |
| - Hoy en día, el subterráneo de Lehendakari Agirre no se utiliza por razones de accesibilidad. Hay padres/madres que llevan a sus hijos/as en coche porque no pueden acceder con los carros de los niños/as al subterráneo. Por dicha falta de accesibilidad, mucha gente cruza la carretera de manera inadecuada y se producen accidentes, además las fases de los semáforos dan preferencia al vehículo y no al peatón. | - Gaur egun, irisgarritasun arrazoien ondorioz, Lehendakari Agirreko lurpeko pasabidea ez da erabiltzen. Guraso batzuk, euren karroak lurpeko pasabidetik sartu ezin dutelez, euren seme-alabak eskolara autoan eramaten dituzte. Irisgarritasun eza horren ondorioz, jende askok errepidea modu desegokian gurutzatzen dute eta istripuak izaten dira. Gainera, semaforoen faseak, oinezkoei lehentasuna eman beharrean, autoei lehentasuna ematen die. |
| - Desde la Mancomunidad de Arratia, se está trabajando a favor de la implantación del Oinez Busa, el bidegorri en Igorre y el taxi rural. | - Arratiako Amankomuzgoa oinez busaren, Igorreko bidegorriaren eta auzo taxi baten alde lan egiten ari da. |
| **<u>2.- Transporte público: ¿Como se podría mejorar el transporte público de cara al resto de los municipios de Arratia?</u>** | **<u>2.- Garraio publikoa: Nola hobe daiteke herriko garraio publikoa beste herriei begira?</u>** |
| - Actualmente, el transporte público es muy caro y debería ser más barato. | - Gaur egun, garraio publikoa oso garestia da eta merkeagoa izan beharko litzateke. |
| - Se debería de incentivar el uso mediante bonos | - Hileko - bonuen edo Urteko - bonuen bitartez, garraio |

| | |
|---|---|
| mensuales o incluso anuales. | publikoaren erabilpena bultzatu beharko litzateke. |
| - Un punto negro es la intermodalidad (conexión mediante coche al autobús y tren). | - Intermodalitatea (kotxearen lotura autobusari edo trenari) puntu baltz bat da. |
| - Es importantísimo implantar una lanzadera entre Igorre y Lemoa. (intermodalidad) | - Igorre eta Lemoa artean (intermodalitatea) lantzadera bat ezartzea oso garrantzitsua da. |
| - El transporte público tiene grandes beneficios. (Por ejemplo: no produce estrés). | - Garraio publikoak abantaila nabarmenak ditu. (Adibidez: ez du estresa sortzen) |
| - Es necesario implantar un billete único. | - Txartel bakarra ezartzea beharrezkoa da. |
| - Además, es preciso que el precio del billete de bus sea el mismo en toda Arratia. | - Gainera, Arratia guztian autobusaren txartelaren prezioa bardina izatea beharrezkoa da. |
| - Hasta la fecha, se ha implantado un taxi bus en Zeanuri y Dima. | - Gaur egun arte, Zeanurin eta Diman taxi busa ezarri da. |
| - Sería preciso implantar un autobús de noche durante los fines de semana que conectase la parada de tren de Lemoa con Igorre. | - Asteburuetan, Igorre eta Lemoako geltokiak lotuko dituen gaueko autobus bat ezartzea beharrezkoa da. |
| - Sería idóneo implantar un servicio de bus nocturno que posibilitase llegar en transporte público a los/las trabajadores/as del Hospital de Galdakao. | - Galdako Hospitaleko langileak garraio publikoan euren lanera joan ahal izateko gaueko ordutegian autobus bat ezartzea. . |
| - Es necesario mejorar las conexiones en transporte público entre Arratia y Durangaldea. (Por ejemplo: En Durango está el INEM y mucha gente de Arratia trabaja en Durango o alrededores). | - Arratia eta Durangalde artean garraio publikoa ezartzea beharrezkotzat ikusten da. (Adibidez: Durangon INEM-a kokatzen da eta Arratiako jende askok Durangon edo Durango inguruan lan egiten du). |
| - Existe una realidad diferente en el núcleo urbano y en los barrios. En los barrios, el transporte público suele ser deficiente y la gente tiende a utilizar el coche. En los núcleos urbanos, la oferta de transporte público es mejor. | - Hirigunean eta auzoetan errealitate desberdin bat existitzen da. Auzoetan, garraio publikoa eskasa izaten da eta jendeak kotxea gehiago erabiltzen du. Hirigunetan, garraio publikoa hobeagoa da. |
| - Para los/las vecinos/as de los barrios existe la posibilidad de llegar a Igorre en coche y aparcar en el parking situado en la mitad del municipio y coger el autobús. | - Auzoetako auzotarrek Igorrera kotxean heldu daitezke eta hirigune erdian kokatuta dagoen aparkalekuan aparkatu eta autobusa hartu ahal dute. |
| - Se cree que cuando se dupliquen las vías de Euskotren, llegará haber una frecuencia de 7 minutos. | - Euskotreneko trenbideak bikoizten direnean, trenaren maiztasuna 7 minutukoa izango dela uste da. |
| - Las paradas de autobús están alejadas. Deberían de existir más paradas de bus y que estás estuviesen más próximas. | - Autobuseko geltokiak urrun daude. Autobus geltoki gehiago eta hurbilago kokatuak egon beharko litzateke. |
| **<u>3.- Transporte alternativo: ¿Conoces si los residentes estarían dispuestos a compartir coche? Web...</u>** | **<u>3.- Beste garraiobide mota batzuk: Ba al dakizu herritarrek kotxea konpartitzeko prest egongo liratekeen? Web...</u>** |
| - A partir de una edad, socialmente está mal visto compartir el coche. Sin embargo, en gente más joven se ve como algo normal. | - Edade batetik aurrera, autoa konpatitzea sozialki txarto ikusten da. Hala ere, gazteen artean normaltasunez ikusten da. |
| - Uno de los puntos negativos de compartir coche es que hay que esperar a tu compañero/a para poder iniciar el viaje. | - Auto partekatuaren puntu baltz bat, bidaia hasteko zure laguna itzaron behar duzula da. |

| | |
|---|---|
| - Hasta el momento, en Arratia se ha realizado alguna experiencia en compartir el coche. (Dima)<br>- Además, en la web de la Mancomunidad de Arratia se ha habilitado un apartado para poder compartir el coche. Está experiencia es reciente y actualmente solo hay 5 usuarios que comparten el coche para ir a las empresas ubicadas en Igorre.<br>- La gente de la Universidad estaría dispuesta a compartir el coche, pero no conocen la web de la Mancomunidad. Convendría realizar una campaña al respecto o/y informar a los/las estudiantes del Instituto. También se podría utilizar los paneles informativos luminisos de Igorre para dar publicidad de dicha web. | - Gaur egun arte, Arratian kotxe partekatuaren esperientzia bakarra izan da (Diman).<br>- Gainera, Arratiako Amankomunazgoko web-ean kotxea partekatzeko sail bat prestatu da. Esperientzia hau berria da eta gaur egun kotxea partekatuz Igorreko enpresetara joateko 5 erabiltzaile bakarrik ditu.<br>- Unibertsitateko jendea kotxea konpartitzeko prest egongo litzateke, baina ez dute Amankomunazgoaren web-a ezagutzen. Horrexegatik, kanpaina bat ezartzea edo institutuko ikasleei informatzea komenigarria izango litzateke. Web-aren publizitatea emateko panel distiratsuak erabili ahalko ziren. |
| **4.- Implicación social: ¿Qué actuaciones deberían ponerse en marcha a nivel institucional para reducir la movilidad? ¿Y a nivel social?**<br>- La información y la celebración de este tipo de foros es un primer paso para ver la implicación del Ayuntamiento.<br>- El Ayuntamiento debería ir implantando los medios para que los/las ciudadanos/as puedan utilizar un transporte más sostenible de manera segura: bidegorris, aparcamientos disuasorios... Además de ello, debería de implantar campañas de sensibilización social.<br>- Desde el Ayuntamiento se responde que muchos padres/madres solicitaban más control de los aguaciles a las horas de entrada y salida del colegio. Sin embargo, la solución del problema no es que haya más control policial, sino que los alumnos/as vayan andando o en bicicleta a la escuela para que los alrededores de la escuela no se saturen de vehículos mal aparcados. Por último, la construcción de la variante modificará totalmente la realidad de Igorre y se espera desde el Ayuntamiento que sea un cambio positivo que mejore la calidad de vida de los/las ciudadanos/as de Igorre. | **4.- Gizartearen inplikazioa: Erakunde mailan zein ekintza jarri beharko lirateke martxan mugikortasuna murrizteko? Eta gizarte mailan?**<br>- Informazioa eta mota hauetako foroak egitea, Udalaren inplikazioa ikusteko lehen pausu bat da.<br>- Herritar guztiek garraio iraunkorrago bat segurtasun osoz erabili ahal izateko, Udala baliabideak ezartzen joan beharko zen: bidegorriak, aparkaleku disuasorioak... Gainera, gizartea sentsibilizatzeko kanpainak ezarri beharko zituen.<br>- Udalak, gurasoek eskolaren sarreran eta irteeran aguazilen kontrol gehiago eskatzen zutela erantzuten du. Eskolaren inguruak kotxe gaizki aparkatuz bete ez daitezen, arazo honen irtenbidea ez da polizia – kontrol gehiago ezartzea, baizik eta ikasleak eskolara oinez edo bizikletaz joatea. Azkenik, Udalaren ustez, saihesbidearen eraikuntzak Igorreko errealitatearen aldaketa eta Igorreko herritarren bizi kalitatea hobetzea suposatuko du. |
| **5. Resumen del trabajo grupal** | **5. Azterketaren laburpena** |
| Al haberse realizado el trabajo grupal en un solo grupo, todos/as los/as asistentes entienden que no es preciso realizar un resumen de los puntos expuestos en el trabajo grupal. | Taldekako lanean barik talde bakarrean hitz egin denez, bertaratutako denen iritziz tarte honetan hitz egindakoari buruz ez dago zertan laburpenik egin. |

| 6. Agradecimientos y despedida | 6. Esker onak eta agurrak |
|---|---|
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se la próxima reunión tendrá lugar el 30 de septiembre, donde se presentará las propuestas de acción del Plan de Acción propuesto para su debate.<br><br>Se comunica la metodología del levantamiento del acta de lo efectuado, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior envío a los asistentes.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, hurrengo pausua zein izango den azaldu da. Irailaren 30ean berriz ere herritarrekin biltzea da asmoa. Beste parte-hartze foro bat ospatuko da egun horretan, Ekintza Planaren aurkezpena izango da hizpide foroan.<br><br>Parte-hartzaileei azaldu zaie akta onartzen denean Udalaren bitartez herritarrei zabalduko zaiela.<br><br>Bertaratutakoei beraien ekarpenak eskertu zaizkie, eta hurrengo fororako gonpidapena luzatu zaie. Hurrengo baten ere beraien zalantzak eta ekarpenak elkarbanatzeko prest daudela antzematen da. |